



Pisua aldatu dut eta berriz kontratatu behar ditut argiaren eta telefonoaren hornidura-zerbitzuak. Kontua zera da, ordainketak helbideratzeko eskatzen didatela bi konpainiek. Behartu al nazakete horretara?

1955/2000 Errege Dekretuak arautzen ditu energia elektrikoko instalazioak banatzeko, merkaturatzeko, horietaz hornitzeko eta horiek jartzeko baime-na emateko prozedurak, eta lege horrek esaten du, ordainketa egitea dagokienez, kontsumitzaile pribatuek hainbat eratan egin dezaketela: bankuan helbideratuta, enpresa banatzaileek aurrezki kutxa edo kreditu-erakundeetan dauzkaten kontuetan sartuta, enpresa banatzaileak kobrantzak egiteko dituen bulegoetan ordainduta edo horretarako izendatzen dituen ordezkoguneetan. Eta aurreko sistema horiek erabiltzeko zailtasunak dauden inguru geografikoetan, bezeroak posta igorpena

eginez edo antzeko bitartekoren bat erabiliz ordaindu ahalko du.

Telefoniari dagokionez, Telekomunikazioen Legeak esaten du bezeroak hautatu egin dezakeela zernola ordainduko dituen merkataritza-zirkulazioan erabili ohi diren zerbitzuetatik berari dagozkionak. Hori aintzat hartuta, iruditzen zaigu kontsumitzaileak baduela eskubidea ordainketa modua aukeratzeko, eta halaxe agertu behar du kontratuan ere; beraz, ezin zaio behartu banku-helbideratzearen bidez ordaintzera. Gure gomendioa da erreklamazio bat aurkez dezazula zure udalerriko edo probintziako kontsumo-zerbitzuetan.



Nire senarra testamenturik egin gabe hil da, eta nire bi semeek, adin nagusikoak biak, lonja bat saldu nahi dute. Higiezin horretatik zer zati legokidake niri eta zer nire semeei?

Honako kasu honetan, tramite edo izapide batzuk egin behar dira lonja saldu aurretik: oinordekoen adierazpena; herentzia notario aurrean banatzea, non ondasunen inbentario bat egin beharko den, baloratu eta bakoitzari zer dagokion ezarri; ondorengotza-zerga tramitatu; eta lonja jabe berrien izenean erregistratu Jabetzaren Erregistroan. Eskubide berezirik edo foru-araurik ez dagoen lurraldeetan (eremu komunean, alegia), seme-alabek eskuratzen dituzte hildakoaren ondasun guztiak, eta haren ezkontide edo bikotekide alargunari, berri, usufuktua edo erabilera-eskubidea dagokio, baina heren batena baino ez (hobekuntzakoa). Kasu honetan, jabetza erdi bana eskuratuko lukete zure semeek, eta alargunak heren bat erabiltzeko

eskubidea izango luke. Seme-alabek aukera dute alargunari diru kopuru jakin bat emateko usufuktutu zatiaren ordainetan (bi aldeek elkarrekin adostu dezakete zenbatekoa). Oinordetza Zergak dioenez, bizi arteko usufuktua balioa ondasunaren balioaren % 70ekoa da, eskubide horren jabeak hogeiru urte baino gutxiago baditu. Adinean aurrera egin ahala, proportzioa murriztu egiten: urte bakoitzeko, % 1 murrizten da, baina sekula ez balio osoaren % 10aren azpitik (hortxe dago muga). Esate baterako, alargunak 69 urte baditu bikotekidea hil denean, higiezinaren balioaren % 20koa izango litzateke usufuktua balioa, baina usufuktua heren bat soilik duenez, lokalak duen balio osoaren % 6,66 egokituko litzaiok.

#### DUDA LEGALAK consultoriolegal@consumer.es

Legearekin zerikusirik duen dudarik izanez gero, emaila bidali dezakezu aldizkari honetara. Kasu bakoitzaren aukerak aztertu ondoren, EROSKI CONSUMERen zerbitzu juridikoek gehien komeni den aholku juridikoa emango dute. Hala ere, orientabidea baino ez dute eskainiko. Lege kontuak konplikatuak dira eta epaian zein epaibidean eragiten duten era askotako elementuak hartu behar dira kontuan, kasuan kasu.

Gogoratu, bestetik, kasu bakoitzari emango zaion erantzun bakarra orrialde hauetakoa izango dela.

#### ANTZEKO KASUETAN, EPAIAK DESBERDINAK IZAN DAITEZKE

Atal honetan era askotako zerbitzu eta hondasunei buruzko epaiak jaso ditugu, kontsumitzaileen intereseko izan daitezkeelakoan. Baina epaiak ematerako orduan ezin dira bi kasu, antzekoak izanagatik ere, bere horretan konparatu eta epaia berdina izango dela pentsatu. Kasu bakoitzean dauden frogak, alde bakoitzaren egoera zehatzak eta epaimahaia osarak, besteak beste, halako edo bestelako epaiak ematea eragingo du.

#### KONTSUMITZAILEAREN LEGEA: BI URTEKO BERMEA

**Jatorrizko matxura bat duen auto erosi, eta ez dela bermean sartzan esan diote**



Herritar batek auto bat erosi zuen kontzesionario batean; berme-aldian zegoela, akats edo matxura bat agertu zitzaion, baina saltzaileak ez zion konpondu. Haren ustez, Legeak ezartzen duen bi urteko bermeak balioa eduki dezan, auto-ekoizleak gomendatu bezala egin behar ziren berrikustea eta mantentze-lanak, eta, gainera, bi urte pasatu baino lehen edo 30.000 kilometro egindakoan eraman behar zen autoa berrikustera. Saltzailearen iritziz, erosleak ez zuen bete baldintza horietako bat ere, eta bermea baliorik gabe geratu zitzaio argudiatu zuen. Baina Zaragozako Probintzia Auzitegiak aintzat hartu zuen salaketa (7.100 euroko kalte-ordaina eskatzen zuen), eta 2012ko apirilaren 25ean eman zuen epaia. Perituek edo adituek aurkeztu zituzten frogak erakusten zuten osagai bat gaizki estalia zegoelako sortu zela matxura. Epaitegiaren iritziz, akats hori jatorrizkoa da eta ondorioztatzen du berrikuste-lanak beste tailer batean egitea eta behar baino beranduxeago egitea ez zela erabakigarria izan, ez baitzen frogatu kausa-ondorio harremana zegoela xehetasun horien eta matxuraren artean.

#### ISTRIPUA OSPITALEAN

**Errehabilitazioa egitera joan klinika batera, erorikoa izan eta ondorioak geratu zaizkio**



Emakume bat gurgil-aulkian joan zen fisioterapia klinikara, bi pertsona lagunduta. Sartzeko, eskailera batzuk igo beharra zegoen, eta fisioterapeuta batek lagundu zion. Harreraguneranean zutik utzi zuten, bidean traba egiten ari zen zerbait kentzeko; eta erori egin zen. Eskuineko aldaka hautsi zuen, eta 92 egun behar izan zituen osatzeko. Klinikak eta aseguru-etxeak gaixoa laguntzera joan zirenen gain utzi nahi izan zuen ardura, eta gaixoak auzitara jo zuen. Asturiasko Probintzia Auzitegiak 2012ko apirilaren 2an eman zuen epaia, klinikaren eta aseguru-etxearen aurkakoa, eta 21.064 euroko zigorra ezarri zion. Epaia araberaren alde batetik, laguntzaileetako bakarra zen zaintzailea, eta fisioterapeutak gaixoaren ardura hartu zuenean, laguntzaile hura gurgil-aulkia tolesten hasi zen klinikara sartzeko. Epaia dioenez, frogatuta gelditu zen klinikako fisioterapeuta bat atera zela gaixoa laguntzera eta zutik utzi zuela, eta begi bistakoa zen tratamendua berehala hastekoa zela, zain egon beharra egokitu izan balitzaio eserita jarriko zukeen eta.

#### IRAGARKIEN IRUZURRA

**Itsas bidai bat kontratatu, eta gelak ez du esku-orrian ageri zenaren antzik**



Bidaiari batzuek itsas bidai bat kontratatu zuten agentzia batean, eta bidaiaren ateratzeko egunean bertan ohartu ziren barkuaren eta gelaren ezaugarriak ez zetozeela bat esku-orrian ageri zirenekin, eta, beraz, ez ziren bidaiaren abiatu. Auzitara jo zuten, eta ordaindu zuten guztia itzul zie-zaietela eskatu, agentziak ez zuelako kontratua bete: goi mailako gela eta luxuzko bidai bat kontratatu zuten eta haien iritziz, baldintza haiek ez ziren betetzen. Galdu egin zuten epaiketa, ostera. 2012ko otsailaren 2an eman zuen epaia Errioxako Probintzia Auzitegiak, eta haren arabera, kontratuaren atal batzuk geratu ziren bete gabe, baina ez denak. Beraz, ezin zuten eskatu bidaiako diru guztia itzul zie-zaietela. Bezeroek zenbat ordaindu zuten ikusita, ezin omen zen esan luxuzkoa zenik bidai, eta gelaren kalitatea esku-orrietan ageri zenarena baino askoz kaskarra goa izan arren, gabezia hori ez zen aski kontratua baliorik gabe uzteko. Epaia dioenez, izan zitekeen bezeroek kontratatu zituzten betebeharretatik baten bat ez egoki eskaini izana eta kalte-ordain baterako eskubidea izatea, sortutako frustrazioagatik, edo eskaini gabe geratu ziren zerbitzuengatik, baina kontsumitzaileen eskaria kontratua erabat balio-gabetzea izan zenez, epaitegiak ez zuen aintzat hartu salaketa.